

# Nekazaritzako ekoizpen primarioaren higiena

## 15/02/03

Joan den asteazkenean, urtarrilak 28, 9/2015 Errege Dekretua (<http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/28/pdfs/BOE-A-2015-710.pdf>) argitaratu zen, urtarrilaren 16koa. Horren bidez, nekazaritzako ekoizpen primarioaren higienari dagokion araudi komunitarioa ezartzeko baldintzak arautzen dira.


Errege Dekretu horrek helburu du nekazaritzako ekoizpen primarioko elikagaien higienari dagokion araudia ezartzeko baldintzak arautzea. Baldintza horiek honako bi araudi hauetan jasotzen dira: elikagaien higienari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 852/2004 Araudian (EE) (<http://www.boe.es/doue/2004/139/L00001-00054.pdf>), apirilaren 29koan, eta pentsuaren higiena arautzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 183/2005 Araudian (EE) (<http://www.boe.es/doue/2005/035/L00001-00022.pdf>), urtarrilaren 12koan.

Araudi berri horrek Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Nagusia (REG EPA) sortzen eta arautzen du. Erregistro hori nahitaezkoa da elikagaien segurtasunari buruzko araudia bete dadin, eta, horrez gain, funtsezkoa da edozein lurralde-eremutan ikuskaritza-zerbitzuak egon daitezen.

Tresna baliagarri eta komenigarria da, halaber, nekazaritza-politikaren beste helburu batzuetarako. Nekazariak, REG EPAn izena emateko, urtero jakinarazi beharko diote Autonomia Erkidegoko organo eskudunari arauaren eranskinean jasotako informazio guztia.

Era berean, 9/2015 Errege Dekretuaren xedea da nekazaritzako ekoizpen primarioaren higiena ofizialki kontrolatzeko programak sortu eta arautzea. Hala, araua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasi eta gehenez ere hilabetera, Autonomia Erkidego bakoitzak MAGRAMari emango dio bere lurralde-eremuan puntu fokal gisa jardungo duen organoaren edo erakunde eskudunaren berri.

9/2015 Errege Dekretua (<http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/28/pdfs/BOE-A-2015-710.pdf>)



**ELIKA** Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)

Necessary Always Enabled